

***GASLAND 2* Josh Fox (2:05:18)**

Aurreko dokumentalari esker akademian nominazioa jaso eta gero, bigarren atalarekin datorkigu John Fox. *Gasland* dokumentalak nazio-mailako eztabaida piztu zuen Ameriketako Estatu Batuetan, hasteko, eta munduan, gero. Izan ere, haustura hidraulikoaren inpaktuen frogak behar genituen, eta huraxe zen, hain zuzen ere, informazio-iturri bakarra, ordura arte ez baitzegoen beste dokumenturik. Gasaren industriak eta gobernuek gas naturala petrolioaren aurrean alternatiba garbi eta osasuntsu gisa aurkezteak susmoak pizten dituela azaltzen da film berri honetan. Gainera, petrolioaren erabileraren enpresetan operazio psikologikoetan adituak diren militar ohiak dituzte, perforazioen aurkari aurre egiteko. Fracking putzuetan askatzen den metanoa arriskutsuagoa da negutegi-efektua duten beste gas batzuk baino. “Ikazetik fracking bidez erazitako gasera igarotzea ez da batere lagungarria klima-aldaketaren aurka. Orduan, plana hau izan beharko litzateke: nola pasatuko gara erregai fosiletatik energia alternatibo batera”.